

Usuario: mac1
Aplicación: QuarkXPress
Documento: gida inam eus
Fecha: viernes, 15 septiembre 2006
Hora: 08:59
Impresora: Crear Adobe PDF1
Páginas: 45



Guía

pactos locales por la conciliación



Gobierno
de Navarra

Finantziazio bateratua: Nafarroako Gobernua, Europako
Gizarte Funtza eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen
Federazioa.

Egilea: Travesías por la igualdad

Edizioa eta Banaketa: INAM

Diseinua: Nexo Diseño y Comunicación

Inprimaketa: Gráficas Abegi

Lege Gordailua: NA-1508/2006

Informazio gehiago: **Nafarroako Emakumearen Institutua**
Lizarra kalea, 7, tarteko solairua, ezkerra. 31002
Iruña – Tel 948 20 66 44
inmujer@cfnavarra.es

Aurkibidea

1. Aurkezpena
2. Bateragarritasuna: behar konpartitua
3. Tokian tokiko entitateak, herritarrak eta Ituna
4. Lan tresna bat.
5. Jokabide egokiaren aitormena duen esperientzia bat
6. Ituna lantzeko prozedura
 - 6.1. Programaren onespina
 - 6.2. Itunerako Deialdia Udalen eskutik.
 - 6.3. Antolamendua eta Lan-batzordeen sorrera
 - 6.4. Hasierako Formazioa.
 - 6.5. Bateragarritasunaren diagnosia herrian.
 - 6.6. Itunaren edukiak eta prestaketa.
 - 6.7. Lan-saioen garapena.
 - 6.8. Esku-hartzeko alorrak.
 - 6.9. Prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa.
 - 6.10. Ituna sinatzea eta abiaraztea.
7. Instituzioen laguntza.
8. Esperientzia pilotu honetan parte hartu duten entitate eta pertsonen zerrenda.
9. Legedia, Bibliografia eta Intereseko Dokumentuak.

1. Aurkezpena



2004ko abenduan, [Nafarroako Emakumearen Institutuak](#) deialdia zabaldu zuen, Nafarroako Udaletako Emakumearen edota Berdintasunaren Zinegotzigoetako maila politiko eta teknikoko pertsonen artean, helburu zuela lanerako proposamen bat aurkeztea, udal horietan [Bateragarritasunaren Aldeko Udal Itunak](#) sina zitezen. 2005ean programa hori Foru Komunitateko hamabost udaletan garatu da eta, ondorioz, urtearen amaieran hamalau herritan landu dira [Bateragarritasunaren Aldeko Udal Itunak](#): [Ablitas](#), [Altsasu](#), [Azagra](#), [Barañain](#), [Burlata](#), [Cabanillas](#), [Lizarra](#), [Murchante](#), [Azkoién](#), [Ribaforada](#), [Zangoza](#), [Tafalla](#), [Tutera](#) eta [Alesbes](#) herrietan, hain zuzen ere.

[Bateragarritasunaren Aldeko Itunen](#) programa hau bizitza pertsonala, lanekoa eta familiarra bateragari egitea errazteko asmoz eratutako ekimena da eta, [Nafarroako Foru Komunitateko I Berdintasun Planaren](#) kariaz, [Nafarroako Emakumearen Institutuak](#) emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko darabiltzan politiken testuinguruan kokatzen da. Gai honetan, alor desberdinetako instituzio publiko eta pribatuen erantzukizun soziala eraginen duten formulak esperimentatzeak norainoko

garrantzia daukan argi ikusirik, INAMEk tokian tokiko alorrak lantzeari ekin zion proposamen honetan, bertara deituz alor horiek ordezkatzeko dituzten entitateak eta eragileak, esperientzia pilotu eta berritzaile batean parte har zezaten, halakoxea izan baita [Bateragarritasunaren Aldeko Udal](#) Itunak lantzeko bidea. Gobernatzeko era berriak berekin dakarren ekimen politikorako estrategiak parte-hartze prozesuak behar ditu, politika publikoekin konprometitutako herritar eragileen jardura erraztuko dutenak.

Aldi berean, indartu egiten da udalen lidergoa herritar guztien bizi kalitatea hobetzera heldu diren proiektuen bultzadan.

Honako Gida hau urtebeteko lanean garatu den prozedura honetan bildutako esperientziaren emaitza da. Bertan parte hartu dute ehunetik gora entitatek, berrehunetik gora lagunek esku hartu dute, ehunen bat lan-saio eman dira bertan, eta honek guzti honek aukera eman digu esperientziak batzeko eta sentsibilizazioa sustatzeko bateragarritasunaren gaian, ondoren ere segida izanen duelakoan lortutako Itun horietako bakoitzean proposatzen diren ekinbideak gauzatzerakoan.

Espero dugu hemen biltzen den esperientzia, helburu baitira, ezagutzera ematea ez ezik, beste udal eta alor batzuetara eramatea, eta eredugarri izatea bateragarritasunaren gai hau izaera eta helburu desberdineko entitateen kontsentsuaren bidez lantzeko erreferentzia gisa.


Esperientzia hau egun gure izatea ahalbidetu duten lagun eta entitate guztien eginahala eskertu nahi dugu hemendik.

Iruñea, 2006ko maiatza.

[Teresa Aranaz Jiménez.](#)

[Nafarroako Emakumearen Institutuko Zuzendari-Kudeatzailea](#)

2. Bateragarritasuna: behar partekatua



Gizon-emakumeen arteko Aukera Berdintasuna printzipio orokorra da – etikoa, filosofikoa, juridikoa eta politikoa –, gure gizarteetan funtsezkoa, bizitzaren alor guztietan (publiko nahiz pribatu) gizon eta emakumeen parte-hartze orekatua bermatzea ekartzen duena. Izan ere, berdintasuna formalki aitortua den arren, oraindik ere bai baitira bazterketa era anitz, premiaz eskatzen digutenak herritarren berdintasun egiazkoaz hitz egitea galarazten duten gizarte-jokabideak aldarazteko. Egiazko berdintasuna lortzea giltzarria da garapenerako eta gizartearen kohesiorako, eta onura ekartzen die emakumezkoiei bezala gizonetzkoiei ere.

Instituzioek eta eragile ekonomiko nahiz sozialek hainbat ekimen bultzatzen dituzte, gizon-emakumeen arteko desberdintasun egoerak moldatzea helburu dutenak. Badira epe luzeko estrategiak, egiturak aldaraztea bilatzen dutenak, eta epe ertain nahiz laburreko estrategiak ere bai, pertsonen eguneroko beharrei erantzuten eta genero harreman ez bidezkoek ekartzen dituzten zailtasunei heltzen saiatzen direnak.

Bizitza ekonomikoa, eta zehatzago lan-mundua, gizon-emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko alor funtsezkoenetakoa da. Gure gizarteetan, etxeko eta familiako arduren banaketa ez bidezkoa suertatzen da generoen artean, eta horixe bera da emakumeek lan-merkatuan erabateko sarrera izatea, bai eta ondoren bertan geratzea eta hobetzea, galarazten dituen trabarik handienetakoa. Gainera, lanaren banaketa sexuaren arabera egitea eta gizonak zein emakumeak alor publiko eta pribatuan bereiz agertzea betikotzen ditu. Bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateragarri egitea arazo multzo konplexu eta gatazkatsua da herritarren zati batentzat: emakumeentzat, auzia lehen pertsonan bizi baitute eurek, baina baita gizonentzat ere, hala nola udalentzat, enprezentzat, lan-merkatuarentzat eta gizartearentzat, oro har.

Horregatik, politika publikoak emakumeei eta gizoni bateragarritasun hori beren bizimodu pertsonalean, familiarrean eta lanekoan errazten saiatzen dira, alde batetik, menpeko pertsonen arretarako familiei laguntza ematen dieten zerbitzu eta neurri



gehiago eta hobeak sustatuz, eta bestetik, lanaren antolamendu era berriak, giza-baliabideen kudeaketa eredu berriak eta lan-baldintza berriak eraginez administrazioetan zein enpresetan.

Hala ere, emakumeak izaten dira, beti ere, bateragarritasunerako baliabide eta zerbitzuak gehien erabiltzen dituztenak. Honek agerian uzten du funtsezkoa dela mentalitate aldaketa bat bultzatzea, etxeko eta familiako alorretan lanen nahiz arduren banaketa orekatzeko eta denboraren erabilera partekatuagoa eragiteko bidean. Garrantzi handikoa da bateragarritasuna berez eta bereziki emakumeak jotzen dituen gatazka delako ideia gainditzeara ahalbidetuko duten eztabaida guneak eragiten saiatzea.

Ororen buru, bateragarritasuna ez da arazo gisa ikusi behar, behar gisa baizik, familiak eta beren kide guztiak jotzen dituen gizarte-egoera baten ondoriozko beharra, eta pertsona horien guztien

nahiak ekarri duela hori, egun ere generoen arabera banaturik dauden eta kide guztien artean era negoziatuan eta kontsentsuatu planifikatu eta banatzekoak diren jarduerak guztientzat bateragarri nahi baitituzte guztiek.

Mentalitate aldaketa lantzeko proposamen bat honako hauxe da, alegia, zaintzaren etika bultzatzea, zaintzari eta arretari balioa ematea, bai gainerakoena bai geure buruarena ere, jokabide horrek autonomo egiten baikaitu, beren kabuz aritzeko gauza diren pertsonak, eguneroko eta funtsezko gauzetan inoren menpean ez daudenak. Aldaketa hauek giltzarri dira aukera berdintasunaren sustapenean, eta bateragarritasuna errazteko tresna ona. Nork bere burua zaintzea eta etxe barruko zainketa, hala nola familian nahiz komunitatean inoren menpekoak diren pertsonen arreta ematea, era partekatuan hartu beharrak dira gizon-emakumeen aldetik; horrek ekarriko du ongizate handiagoa eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

3. Tokiko entitateak, herritarrak eta Ituna

Udal Ituna: bateragarritasunerako testuingurua



Tokian tokiko alorra, herritarrengandik hurbilekoa baita, testuinguru ezin hobea da bateragarritasunerako baliabideak eta zerbitzuak eragin eta kudeatzeko, bai eta zaintzaren etika sustatzeko ere. Bateragarritasuna tokian tokiko alorretik errazteak zera suposatzen du, herritarren atxikimendua eta parte-hartzea aintzat hartzea bateragarritasunerako baliabideak eta zerbitzuak eratzeko prozesuko fase guztietan, diseinu eta antolamendutik hasita, kudeaketa eta erabileraraino. Suposatu ere, enpresak eta bertako erakundeak inplikatzeko suposatzen du, zaintzaren etika sustatuko duten lan egiteko modu berriak garatzerakoan. Eta halaber suposatzen du jarrerak eta jokabi-

deak kolokan jarri eta eztabaidatuko dituen prozesu bat zabaltzea, bateragarritasuna errazteko bidean, zaintzaren banaketa onartzerakoan oreka handiagoa lortzeko asmoz.

Udal Itunak hainbat helbururi begira elkarrekin lanean aritzeko konpromisoan lotzen ditu entitate sinatzaile guztiak, bertako herritarrei errazteko, kasu honetan, bizitza familiarren, pertsonalaren eta lanekoaren arteko bateragarritasuna. Itunak zehaztu eta antolatu egiten du, helburu horiek lortzeko bidean, aurrera egiteko testuingurua, eta herritarrengana igortzen ditu helburuon edukiak, egonkortasunaren eta konpromiso parte-hartzaile eta eragilearen testuinguruan.

Udal Itunak bertako administrazioen eta eragile ekonomiko nahiz sozialen arteko kontzertazioa adierazten du, eta hartutako bateragarritasun neurrien eraginkortasuna eta egokitasunaren onurarako balio erantsia da, delako toki horren ezaugarrien arabera doitzen baititu neurriok.

Aldi berean, **Udal Itunak** herritar aktiboaren garapena eta gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren finkapena laguntzen ditu. Izan ere, era honetako Itunen bitartez, generoen arteko

harreman berriak eratzen baitira, hartara lotuz gizon-emakumeak bizitza publikoan nola pribatuan era biziaren parte hartzeko konpromisoan.

4. Lan tresna bat



Gida honen helburu nagusia hauxe da, *Bateragarritasunaren Aldeko Tokiko Itunen* Programaren esperientziatik abiatuta landutako zenbait orientabide proposatzea, erabilgarriak izan daitezen Bateragarritasunaren Aldeko Itun berriak garatzeko erreferentzia gisa.

Beraz, proposamenaren baliagarritasunaren analisiaren emaitza da Gidaa, eta hobekuntzak iradokitzen ditu ondorengo prozesuetarako.

Gainera, Gidak honako helburu hauek ditu:

- *Bateragarritasunaren Aldeko Itun* berriak garatzeko orientabide izatea;

- Bateragarritasunari heltzeko era berrien gaineko gogoetarako gonbitea egitea;

- Tokiko parte-hartze prozesuak sustatzea Itunaren ereduaren bidez;

- Parte hartzen duten udal desberdinek burututako prozesua azaltzea; Horregatik, tresna praktikotzat eta aldi berean gogoeta eta eztabaidaren pizgarritzat aurkezten da.

Gida hau prozesua ezagutu nahi duten guztiei begira egin dago, eta bereziki beren jarduera alorretik bateragarritasunaren gaian lan egin nahi duten per-

sona nahiz entitateei begira. Ituna, gaia hau dela edo beste edozein dela ere, helburuak eta ekimen komunak beste pertsonekin nahiz entitateekin ados jartzeko tresnatzat dutenei ere interesekoa izanen zaie Gida hau.

Azkenik, Gida hau gizon-emakumeen arteko Aukera Berdintasun egiazkoa lortzeko urrats bat gehiago emateko egindako eginahalaren emaitza duzue, eta bide berri baten hasiera, pertsona eta entitate anitzentzat zabalik den bide berria, hain zuzen ere.



5. Jokabide egokiaren aitormena duen esperientzia bat

Jokabide egokien Aitormena eta Tokiko Lidergoa

“Bateragarritasunaren Aldeko Tokiko Itunen Programa” honek parte hartuko du 2006ko hone-tan DUBAIko Udalak eta NAZIO BATUEN ERA-KUNDEAK antolatzen duten BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO JOKABIDE EGOKIEN DUBAIKO SEIGARREN NAZIOARTEKO LEHIAKETAN.



Lehiaketaren lehen fase batean Jokabide egoki gisa hautatua izan da ESPAINIAKO HABITAT KOMITEKO Adituen Taldearen eskutik, eta Jokabide egokien Espainiako VI. Katalogoan sartuko da. Beraz, DUBAIko sariketara Espainiako Gobernuaren laguntzaz eta izendapenez joanen da.

Jokabide egokien eta Tokiko Lidergoaren lehenbiziko aitormen honek nahikoa adore ematen die, berez, komunitatearen denborak, zerbitzuak eta baliabideak berdintasunaren eta bateragarritasunaren alde antolatzeko era berrien bila lana eta eginahala elkarrekin egin duten hainbat eta hainbat lagun eta entitateri.



6. Ituna lantzeko prozedura

6.1. Programaren onarpena

Europako Gizarte Funtsaren 3 Helburuaren Programa Operatiboaren Testuinguruan (6 Ardatzeko 6.3.6 Ekintza), 2005eko apirilaren 14an, Nafarroako Emakumearen Institutuko (INAM) Zuzendari Gerenteak ontzat eman zuen (63/2005 Ebazpenaz) *“Emakume eta gizonen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiarra bateragarri egitearen aldeko tokiko Itunen Programa”*, herrietan nahiz eskualdeetan lantzekoa, eta bertan parte hartzeko eskaera egiteko epea zabaldu zen 2005erako, epe hori urte bereko maiatzaren 27an amaitzen zelarik.

Programaren helburua hauxe da, alegia, *“Tokiko Entitateei eta tokiko alorreko eragileei laguntza eskaintzea parte hartzen duen herri bakoitzean bizitza familiarra, profesionala eta pertsonala Bateragarri egiteko Udal Ituna* sina dezaten, honen helburua izanik erantzun eraginkorra ematea bateragarritasuna dela-eta dauden zailtasunei, emakumeak lan munduan sartzea erraztuz, eta orobat, erantzukizun komuneko kontzientzia garatzen laguntzea, pertsona guztien bizitza familiarretik eta pertsonaletik sortzen diren eginkizunei aurre egiteko”. (63/2005 Ebazpena, Eranskina Bigarrena).

Deialdia “Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legeak, uztailaren 2koa, arautzen dituen Nafarroako Toki Entitate guztientzat” zabalitzen da (Ebaz. . 63/2005, Eranskina Hirugarren).

Programan aurreikusitako ekimenak aurrera eramateko, INAMek ezartzen du itunak formulatzeko prozesuaren kudeaketarako beharrezko laguntza teknikoa ematea Tokiko Entitateei, Aholkularitza Tekniko baten bitartez.

Prozesua eta programaren proposamena diseinatzear gain, lan-saioak egiten diren bitartean lagundu eta ebaluatzeaz gain, Aholkularitza teknikoaren kontu da prozesua garatzeko beharrezko materia-



lak sortzea, eta bere gain du, baita ere, Gida hau osatzen duten edukiak. Horregatik, esperientzia pilotu honetan guztian zehar, bere praktikak bildu, sistematizatu eta ebaluatu dira, argitalpen honen helburuak erdiesteko aukera ematen duen informazio erabilgarria eskaintzeko asmoz.

6.2. Itunaren deialdia Udalen eskutik

Bateragarritasunaren Aldeko Tokiko Itun eredu honetan, Udalek hartzen dute beren gain beren udalerrian Ituna sustatu, bultzatu eta koordinatzeko ardura. Hortaz, Ituna lantzeko proposatzen den prozedura Udalaren deialdiarekin hasten da, bertako eragile ekonomiko eta sozialak deituta, Ituna landu eta sina dezaten.

Itunen helburua kontsentsu soziala eta instituzionala ahalik eta zabalena lortzea baita, herritarrei bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala bateragarri egitea errazteko irtenbideak elkarrekin bilatzea izanik xedea, komenigarria da Udala bera izatea deialdiaren buru, eta oso gogoan izatea prozesu guztian inguru hartako entitate eta erakunde publiko nahiz pribatu ahalik eta gehienak, esaterako:



Emakumeen, auzoen, kulturaren eta halakoen elkarteak eta bestelako entitateak.

- Alderdi politikoak
- Sindikatuak
- Enpresak eta enpresen zein merkataritzaren Erakundeak
- Ikastetxeak
- Bestelako eskumen alorretako entitate eta instituzioak, beti ere udalerrian edo eskualdean ari direnak.

Garatu dugun esperientzia ikusita, gure ustez oso litekeena da deialdiok eragin handiagoa behar izatea bazterrean geratu izaten diren (eta prozesu hauetan oso garrantzitsuak izaten diren) entitateetan, besteak beste enpresetan eta haien erakundeetan, informazio gehiago eskainiz eta haien parte-hartzearen garrantziaz jabearaziz.

Egokiena da deialdi zehatza egitea entitate mota bakoitzarentzat, eta ez deialdi orokorra udaleko entitate eta erakunde guztientzat, hartara hobeki jabetuko baitira auziaren eta beren parte-hartzearen garrantziaz.

6.3. Antolamendua eta Batzordeak osatzea

Ituna lantzeko prozesua eta ondorengo gauzatze-aldia kudeatzeko eredu generikoa proposatzen da, udal bakoitzaren ezaugarrien eta beharren arabera aldaera desberdinak hartzen dituena.

Eredu generiko honen funtsa bi batzorde osatzea da:

1. Batzorde instituzionala

Osaera

Erabakimena duten ordezkariak, honako alor haue-takoak:

- Udaleko edo tokiko entitateko talde politiko bakoitza
- Emakumeen, auzoen, kulturaren elkarteak.
- Udalean edo eskualdean ari diren alderdi politikoak
- Sindikatuak.
- Enpresa eta merkataritza alorreko erakundeak.
- Ikastetxeak / Udal eskola-kontseilua
- Eskumeneko alor desberdinetako instituzioak eta erakundeak, egoitza udalerrian edo eskualdean dutenak.

Eginkizunak:

- Ituna sinatzea eta betearaztea.
- Ituna betetzeko behar diren erabakiak hartzea.
- Proposamenak egitea.
- Batzorde Teknikoaren proposamenak onartzea.
- Plana aurrera eramaten dela zaintzea.
- Prozesuaren garapenari jarraipena egitea.
- (Bestelako eginkizunak errealitate bakoitzaren arabera).

Ardurak:

- Udal bakoitzeko alkatea izanen da lehendakari edo, bere kasuan, tokiko entitateko Lehendakaria, edo hauek izendatzen duten ordezkaria.
- Lehendakaritzak Batzorderako deialdia egiten du,

batzarren buru da, eta erabakiak Batzorde Teknikoari helarazten dizkio.

- Entitate bakoitzeko ordezkariak Ituna sinatzen dute, hitza eta botoa dute Batzorde Instituzionalean eta Ituna egoki betetzen dela zaintzen dute.

2. Batzorde Teknikoa

Osaera

- Udal gobernuko edo tokiko entitateko ordezkari bat (ahal izanez gero zinegotzia edo emakumearen edota berdintasunaren alorreko kide bat, erabaki-mena duena).

- Udaleko Berdintasunaren Teknikaria den pertsona bat

- Udaleko edo eskualdeko honako departamentu hauetako Teknikaria den pertsona bat:

- Gizarte Zerbitzuak
- Enplegua
- Kultura-Astaldia-Festak
- Hezkuntza-Kirolak
- Hirigintza/Zerbitzu Publikoak

- Udalak edo tokiko entitateak egoki deritzen pertsonak, kideen kopuruak

- Batzordearen eraginkortasuna kaltetzen ez badu (gehienez 10 lagun)

Eginkizunak:

- Ituna garatzeko eta gauzatzeko ekimenak proposatzea Batzorde Instituzionalari.
- Ituna garatzea eta gauzatzea.
- Itunaren garapenaz informazioa helaraztea Batzorde Instituzionalari
- Itunaren ekimenak ebaluatzea.

Ardurak:

- Eginkizun honetarako izendatutako zinegotziak edo batzordekideak zuzenduko du Batzorde Teknikoa; Batzorde Instituzionaleko idazkaritza beteko du, zubi-lana egingen du bi Batzordeen artean, eta Batzorde Teknikoaren batzarren deialdiak



eginen ditu.

- Berdintasunaren Teknikaria den pertsonak:
 - Batzorde Teknikoaren lanak koordinatzen ditu.
 - PLxC delakoan genero ikuspegia atxikitzea eragiten du.

- Orientabidea eta aholkularitza eskaintzen die Batzorde Teknikoari eta Batzorde Instituzionalari generoaren, aukera berdintasunaren eta bizitza familiarra eta profesionala bateragarri egitearen inguruko gaien gainean.

- Txostenak eta memoriak prestatzen ditu.

- Batzorde Teknikoaren idazkari lanak egiten ditu.

- Udaleko edo tokiko entitateko langile teknikariak:
 - Ekimenak proposatzen dituzte beren alorretatik.
 - PLxC delakoaren ekintzak gauzatzen dituzte.
 - Batzorde Teknikoko batzarretan parte hartzen dute.

Zenbait udaletan, beren tamaina dela-eta, edota parte hartzen duten entitateen izaera dela-eta, ez dago desberdintzerik Batzorde Instituzionala eta Batzorde Teknikoa, bata eta bestea osatzen duten pertsonak berberak direlako. Kasu hauetan Batzorde misto bat osa daiteke, bataren eta bestearen eginkizunak bere gain hartuko dituen.



Behin Ituna egin ondoren, betetzen dela zaintzeko, egitura bera mantendu daiteke (Batzorde Instituzionala +Batzorde Teknikoa edo Itunaren Batzorde Mistoa), edo egokitu daiteke, lehendik udalaren alorrean ari ziren beste egitura batzuk

erabilita (Gobernu Batzordea, Gizarte Zerbitzuetakoa Batzordea, Emakumearen Batzordea edota Aukera Berdintasunarena, Emakumearen edo Berdintasunaren Udal Kontseiluak, etab)

Erabakimena duten pertsonak parte hartzeak proiektuaren eraginkortasuna areagotzen du.

6.4. Hasierako formazioa

Formazioa osagai giltzarria da Itunaren lanketa eta garapenaren arrakasta ziurtatzeko. Gida honetan aipatzen den esperientzian, erdibidean egiaztatu ahal izan genuenez, Aukera Berdintasuna eta Enplegurako politiken eta generoaren analisia eta teoriaren oinarritzko kontzeptuen ezagutza eta erabilera, eta zehatzago, bizitza profesionala, familiarra eta pertsonala bateragarri egitearen gainekoa, baldintza beharrezkoa zen prozesuaren beraren garapenerako. Esperientzia hartan, programa zabaldu egin zen, beren udalean Ituna lantzen ari ziren pertsonen formazioa eskainita.

Izan dugun esperientziatik sortzen den proposamenik sendoenetakoa honako hau da, alegia, [Bateragarritasunaren Aldeko Udal Itunak](#) aurrerantzean egiterakoan, lehen urratsa izatea bertan ariko



diren pertsonen ezagutzaren ebaluazio bat egitea, eta horren arabera eskaintzea oinarrizko formazioa bat, landu beharreko gaien gainekoa, bai norberarentzat, bai lan- taldearentzat, oinarri sendoak eratze aldera. Izan ere, zalantzarik gabe, hasierako formazioa batek ondorengo prozesua arindu egingen

bailuke, eta saihestu egingen luke bateragarritasunaren inguruko oinarrizko kontzeptuak lan-saioetan behin eta berriz argitzen ibiltzeak ekarri izan dituen atzerapenak.

Ondoko koadro honetan ageri da formazioa horretarako edukien proposamen bat

Bateragarritasuna, Aukera Berdintasuna, Generoa eta Enplegua gaietarako oinarrizko formazioa programa

PLxC an parte hartzen duten entitateen ordezkarietzat egina.

Formazioaren edukiak

Aukera Berdintasunaren printzipioa

Generoa, Aukera Berdintasuna eta enplegua

Enpleguaren alorreko desberdintasun baztertzailak zuzentzeko mekanismoak

Zaintzaren etika: menpeko pertsonak artatzea, arduren banaketa eta etxeko lanak, antolamendua eta denboren banaketa

Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa bateratzea: ekiteko alorrak, programak, zerbitzuak eta jarduerak.

Iraupena

Gutxienez 8 ordu – Gomendagarria da formazioa 20ren bat ordukoa izatea.

Unea

Ituna prestatzeko prozesua hasi aurretik.



Osagarri gisara, aldeztu aurretik presta daitezke Ituna jakinarazteko formazioa bat, edukia landu ondoren egitekoa, hartara, herritarren aurrean edota hainbat forotan haren berri eman behar dutenek

aukera izanen baitute eskuarteetan dituzten tresnak eta argudioak entsaiatzeko, gero segurtasun eta trebezia handiagoaz erabiltzekotan.

Beharrezkoa da Itunean parte hartzen duten pertsona guztiei oinarrizko formazioa eskaintzea aukera berdintasunaren inguruan, eta zehatzagoa bateragarritasun gaiaren gainean.



6.5. Bateragarritasunaren diagnostia herrian

Garrantzitsua da ezagutzea herrian zein den abiapuntu egoera bateragarritasuna dela eta, eta hori hainbat aspekturi dagokienean:

- Udaleko Berdintasun Planari dagokionean, hala-
korik baldin balego;
- Inguru hartan diren baliabideei zein zerbitzuei
dagokienean, hala nola bertan garatutako progra-
mari eta ekimenei dagokienean ere;
- Bateragarritasuna dela-eta gizon-emakume langi-
leek, familien egiturekin eta familia horietan men-
peko pertsonak izatearekin loturik, izaten dituzten
beharrei dagokienean,

- Itunean parte hartzen duten entitateen aukerei,
esperientziari, konpromisoari eta borondateari
dagokienean.

Diagnosiaren baitan aldaera horiek guztiak aztertze-
ak aukera ematen du beharrei eta problematika
zehatz bakoitzari lotutako ekintzak bideratzeko
udal bakoitzean.

Diagnosia egin daiteke propio programa honetara-
ko, edo lehenago egindako beste diagnosiren bate-
ko informazioa erabili, Berdintasun Plana egiteko
erabilitakoa, adibidez, edota eskura izan daitezkeen
bestelako informazio iturri batzuk. Diagnosia egitea
udalen kontua da, baina gainerako entitateek ere
eman dezakete beren jarduera alorrari dagokion
informazioa.

Ondorengo koadro honetan hasierako diagnosirako eskema bat proposatzen da

HASIERAKO DIAGNOSIA

BATERAGARRITASUNA DELA-ETA HERRIAN DEN EGOERAREN EZAGUTZARAKO HURBILPENA

Vinculación con el Plan de Igualdad Municipal si lo hubiere

1. Populazioaren datuak

- Herrian den populazioaren datu osoak, sexu eta adin multzoka (populazio piramidea) (bereiz agertu bateragarritasun gaiari begira intereseakoak diren adin multzoak)
- Azken 15 urteotan populazioak izan duen bilakaeraren gaineko datuak.
- Populazioaren datuak bereiz nazionalitatea, jatorria eta sexuaren arabera.
- Udal eroldako datuak:

Familia-unitateen osaera

Familia-unitateen kopurua familiako kideen kopuruaren arabera.

Seme/alaba kopurua familia-unitate bakoitzeko.

Beren kargu menpeko pertsonak dituzten familia-unitateen kopurua.

2. Enpleguaren datuak

- Populazio aktiboa sexuaren arabera bereiz.
- Populazio langilea/langabetua sexua, adina eta nazionalitatea/jatorriaren arabera bereiz.
- Enplegua eskatu dutenak sexu eta adinaren arabera bereiz.

3. Egitura instituzionala

- Udal batzarraren osaera eta egitura sexuen arabera adierazia.
- Emakumearen/aukera berdintasunaren zinegotzigo espezifikoa baden ala ez.
- Enpleguaren zinegotzigo espezifikoa baden ala ez.
- Udalaren egitura teknikoa.

4. Mankomunitateak

- Osatzen dituzten herriak.
- Komunean dituzten zerbitzuak
- Langileak eta antolamendua.

5. Ehundura ekonomikoa

- Udalean diren enpresen kopurua eta tamaina (langile gizon-emakumeen kopuruak ahal bada) eta zein alorretakoak diren.
- Negozio eta denden kopurua, egitura.
- Enpresa gizon eta emakume autonomoen kopurua.
- Enpresa eta merkataritza alorreko erakundeak.
- Sindikatuak

6. Gizarte ehundura

- Udalean diren elkarteak eta euren jarduera-alorrak.
- Udalean parte hartzeko egiturak.

7. Zerbitzuak, azpiegiturak eta programak.

- Udal hornidurak eta tipologia (kiroldegia, kultur etxeak, zentro zibikoak, aulak, lokalak oro har)
- Gizarte zerbitzuak, kultura, kirola, hezkuntza, gazteria, aukera berdintasuna, emakumeak... alorretakoak.
- Gizarte programak, kultura, kirola, hezkuntza, gazteria, aukera berdintasuna, emakumeak... alorretakoak.

8. Bestelako datu interesgarriak

- Herritarren parte-hartzea.
- Denboraren erabilerak
- PIOrekiko lotura, baldin balego.

Garrantzitsua da Itunak udaletako berdintasun politikei lotzea

6.6. Itunaren edukiak eta prestaketa

Bateragarritasunaren Aldeko Ituna berari atxikitzen zaizkion entitateek sinatu beharreko agiri batean gauzatzzen da. Honako egitura hau proposatzen da agiri horretarako:



Bateragarritasunaren Aldeko Udal Itunaren egiturarako proposamena

1. PRINTZPIO ETA ASMOEN ADIERAZPENA

Itunaren sarrera, honako gai hauek aipatzen dituenen: Aukera berdintasuna, bateragarritasuna eta enplegua, zaintzaren etika, Itunaren filosofia tresna den aldetik, tokiko alorra esku-hartze alor gisa.

2. UDALEAN BATERAGARRITASUNA ETA AUKERA BERDINTASUNA DIRELA-ETA IZAN DIREN AURREKARIEN SINTESIA

3. DIAGNOSIAREN ONDORIOAK

4. ITUNEKO KIDEAK: SINATU DUTEN ENTITATEAK ETA EUREN DESKRIBAPEN LABURRA

5. ITUNAREN HELBURU OROKORRA ETA HELBURU ZEHATZAGOAK

6. AKORDIOAK

Itunaren antolamenduaren hainbat alderdi biltzen ditu (Ituna eta lan Programa denboran zehar, lanen banaketa, eginkizunak eta ardurak, Itunaren kudeaketaren egitura, bileren maiztasuna, entitateen atxikipenak eta bajak, berrikuspena, etab.) eta halaber, sinatu duten entitateen konpromisoa eta inplikazioa Ituna eta lan Programa aurrera eramatekoan.

7. LAN PROGRAMA

8. SINADUREN ETA ZIGILUEN ORRIA (LEKUA, EGUNA, PERTSONA ORDEZKARIA, KARGUA, ENTITATEA...)

Ituna Lan Programa bati lotzen zaio, hasiera batean urte-beterako, iritsitako akordioak ekintza zehatzen bidez gauzatzeko aukera ematen baitu horrek. Hala egiteko, honako lan-eskema honi jarraitzen ahal zaio:

1. Ekiteko area tematikoak aukeratzea, zehaztutako beharren eta ezagututako eskaeren arabera (diagnosia-rekin baieztatu)
 2. Aukeratutako alor horietako bakoitzerako ekimenen proposamena.
 3. Udal horretarako aukeratutako ekimenekin lotutako jokabide egokien inguruko solasaldia. Adibideei eta haien aplikazioari eta egokitzapenari buruzko eztabaida.
 4. Udalerako egokienak diren ekimenen gaineko gogoe-ta eta aukeraketa. Hurrengo saio teknikoan sakonago aztertu eta zehaztuko dira.
- Komenigarria da Lan Programaren egituraren ondorengo atal hauek sartzea:
- Helburuak eta iraupena (urtebete).
 - Alorkako ekimenak eta bertan inplikaturako entitateak.
 - Ekimenen kronograma.
 - Parte-hartzaileak/pertsona onuradunak.
 - Giza baliabideak eta baliabide materialak.
 - Aurrekontua eta diru-iturriak.

6.7. Lan-saioen garapena

Itunaren lanketa hainbat lan-saiotan eramaten da aurrera, Aholkularitza Tekniko bat tarteko, honek koordinaturik edukiak eta prozedura. Lan-saioetarako deialdia Udaletxearen kontu da, zerbitzuaren bidez edo hura ordezkatzan duten eta Ituna koordinatzen duten pertsonen bidez. Gomendagarria da gutxienez sei lan-saio egitea.

Ondoren, lan-saioetarako edukien proposamen bat aurkezten da. Gomendagarria da formazioa lehen saioaren ondoren egi-tea, honek izaera instituzionala baitu, informatiboa eta oroko-rra, eta ondorengo saioetako lan teknikoari ekin baino lehen. Azken saioa ere instituzionala da, eta protokolo handikoa (Ituna sinatzea).



LEHEN SAIOAREN ESKEMA

- Programa orokorraren aurkezpena
- Parte-hartzaileen aurkezpena
- Bateragarritasuna / zaintza eta aukera berdintasuna: testuinguru teorikorako sarrera
- Tokiko alorra bateragarritasunerako esku-hartzeko maila gisa
- Itunen izaera eta edukia
- Prozedura:
 - o Nork parte hartzen duen
 - o Zer egin behar den
 - o Zein denbora-alditan: kronograma eta egutegia
- Hitz egiteko txandak: Itunaren gaineko iruzkinak
- Itunarekiko atxikipenak

BIGARREN SAIOAREN ESKEMA

- Diagnosi eta eztabaidarako eskemaren proposamenaren aurkezpena.
- Itunaren edukietarako proposamenaren aurkezpena. Antolamendua.
- Lan-programa osatuko duten lan-alorren eta ekimenen gaineko solasaldia. Beharren eta eskaeren hasierako zehaztapena.

HIRUGARREN SAIOAREN ESKEMA

DIAGNOSIA

- Diagnosirako informazioaren gaineko solasaldia.
 - o Bateragarritasun beharrak
 - o Eskura diren baliabideak
 - o Lan-programa baterako proposamenak

PRINTZIPIO ETA ASMOEN ADIERAZPENA

- Adierazpenaren sarrerako zirriborroaren aurkezpena
 - o Proposamenaren irakurketa
 - o Ekarpenak eta onarpena
- Edukien berrikuspen bateratua edo prestaketa:
 - o Udalean diren aurrekariak (sintesia)
 - o Diagnosiaren ondorioak (beharrak, diren baliabideak, ekiteko proposamenak)
 - o Sinatzen duten entitateen deskribapena.
- Akordioak honakoen gainean:
 - o Itunaren garapena denboran
 - o Entitate bakoitzak bete litzakeen eginkizunak eta ardurak: antolakuntza (lan-batzordea) koordinazioa, jarraipena, ebaluazioa, etab.

LAN-PROGRAMA

- Ekiteko proposamenen antolamendua lan-programan ondorengo eskema honen arabera:
 - o Helburuak
 - o Alorrak
 - o Ekintzak
 - o Egutegia
 - o Parte-hartzaileak eta pertsona onuradunak
 - o Giza baliabideak eta baliabide materialak
 - o Diru baliabideak eta aurrekontua

ZABALPENERAKO MATERIALA

- Egin nahi den zabalpenerako materialaren edukien gaineko erabakia.



LAUGARREN SAIOAREN ESKEMA

PRINTZIPIO ETA ASMOEN ADIERAZPENA

- Sarreraren berrikuspena eta onarpena
- Gainerako atalen berrikuspena eta onarpena:
 - o Udalean diren aurrekariak
 - o Diagnosiaren ondorioak (beharrak, diren baliabideak, ekiteko proposamenak)
 - o Entitate sinatzaileen deskribapena
 - o Entitate bakoitzaren eginkizunak eta ardurak: antolakuntza (lan-batzordea), koordinazioa, jarraipena, ebaluazioa, etab.
 - o Itunaren garapena denboran
 - o Itunaren antolamendua

LAN-PROGRAMA

- Proposamenaren itxiera eta erredakzioa eskemaren arabera.
 - o Helburuak
 - o Alorrak
 - o Ekintzak
 - o Egutegia
 - o Parte-hartzaileak eta pertsona onuradunak
 - o Giza baliabideak eta baliabide materialak
 - o Diru baliabideak eta aurrekontua
- Koordinazioa, bere kasuan, Berdintasun Planarekin.

ZABALPENERAKO MATERIALAK

- Zabalpenerako materialerako testuen eta marrazkien edukien gaineko solasaldia. Diseinua eta Aurrekontua.

EBALUAZIO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

BOSGARREN SAIOAREN ESKEMA

ITUNAREN TESTUAREN BERRIKUSPENA

- Irakurketa
- Batzorde Teknikoaren (edo Mistoaren) onarpena

ITUNAREN KOMUNIKAZIORAKO FORMAZIOA SAIOA (BATZORDE TEKNIKOA EDO MISTOA)

ZABALPENERAKO MATERIALA

- Zabalpenerako materialaren diseinuaren berrikuspena. Komunikaziorako estrategiaren proposamena

EBALUAZIOA

- Galdetegiak banatzea eta jasotzea
- Eztabaida taldea: ondorioak eta proposamenak



SEIGARREN SAIOAREN ESKEMA

ITUNAREN TESTUAREN BERRIKUSPENA

- Ituna Onartzea edota Sinatzea Batzorde Instituzionalean

ITUNAREN KOMUNIKAZIORAKO FORMAZIOA SAIOA (BATZORDE INSTITUZIONALA)


ZABALPENERAKO MATERIALA

- Zabalpenerako materialen eta komunikaziorako estrategiaren aurkezpena

EBALUAZIOA

- Galdetegiak banatzea eta jasotzea
- Eztabaida taldea: ondorioak eta proposamenak.

ITUNA SINATZEKO DEIALDIAREN ANTOLAMENDUA (saioan bertan sinatzen ez bada)



6.8. Ekiteko alorrak

Alor eta programa desberdinetan izandako esperientzia anitzek erakutsitakoaren arabera, ekiteko bost alor egituratu dira, eta horietako bakoitzean hainbat ekimen posible. *Bateragarritasunaren Aldeko Tokiko Itunen* Programako esperientziaren bidez landutako Itunen lan programek eskema horren araberrako ekimenak proposatzen dituzte, aurrerago biltzen den moduan.

1. Baloreen aldaketa erantzukizun partekaturantz eramateko sentsibilizazio ekintzak.

Baloreen aldaketa eragiteko ekintzen artetik aipagarria da *sentsibilizazio kanpainak* egitea honako helburu hauetarako:

- Herritarrok oro har sentsibilizatzea bizitza familiarra eta profesionala bateragarri egin beharraz
- Enpresetako ehundura, langileak eta familiak sentsibilizatzea familiako eginkizunak genero ikuspegitik banatu beharraz.

- Eskoletako populazioa batera hezteko etxeko ardurez eta lanak berdintasunetik banatu beharraz. Dibertsifikazio profesionala sustatzea hezkuntza komunitatearen baitan.

- Heziketa, formazioa eta gizarteratzeko prozesuetan garrantzitsuak diren gizarteko eragileak sentsibilizatzea generoa dela-eta ez baztertzeari buruz, bai eta bizitza sozial eta ekonomikoaren alor guztietan emakumearen erabateko integrazioa sustatu beharri buruz ere.

Helburu hauek lortzeko, honako ekimen hauek eraman daitezke aurrera, besteak beste:

1. Ekitaldiak antolatzea eta materialak sortzea, hainbat euskarritan, herritarrei eskaintzeko.
2. Enpresetako erakundeek familien egoera eta erantzukizunen arabera egokitzeko duten gaitasuna hobetzeari begirako kanpainak, batez ere laneko antolamenduaren era berriak sartzea sustatuz.
3. Sentsibilizazio kanpainak eskolaren alorrean.

Familia eta eskola sozializazioaren eragile nagusiak dira umeen bizitzaren hasierako urteetan; haietan

barna transmititzen dira gure kulturaren finkatutako eredu sexistak, baina eredu horiek erauzten ere ederki lagundu dezakete. Horrexegatik da hain garrantzitsua alor honetan esku-hartzea, esaterako honako ekimenon bidez:

- Guraso elkarteei begirako Bateragarritasun Tailerrak.

- Ikastetxeetan gai honetaz aritzeko materialak diseinatzea eta lantzea, familiekin eta hezkuntzaren alorreko profesionalekin batera.

- Hezkidetzari buruzko gidak egitea.

- Bizitza familiarra eta lanekoa bateragarri egitearen inguruko gaiak hartuta argazki, pintura, literatura lehiaketak eta antzekoak antolatzea.

- Bizitza familiarra eta lanekoa bateragarri egitearen inguruko gaiak darabiltzaten antzerki lanak ematea ikastetxeetan.

- Etxeko lanen banaketarako pedagogia eredu berriak ezartzea BHletan eta LHletan.

2. Formazioa ekintzak.

Formazioaren alorrean, Generoa eta Aukera Berdintasunaren inguruko gaiak, izaera orokorra dutenak, bizitza familiarra eta profesionala Bateragarri egitea gaiarekin, izaera espezifikoagokoa berau, tartekatzen dira, eta bateragarritasunean bitartekaritza lanak egiteko ezagutza eta trebezia hartzearekin ere bai.

Formazioa hori presentziala izan daiteke, urrunetik egindakoa (on-line ere bai) edota tartekatua, eta izan daiteke, adibidez, udaleko edo beste entitate batzuetako teknikarientzat, edo udaleko maila politikoko jendearentzat, Giza Baliabideetako ardura-dunentzat edo sindikatueta ordezkarientzat.

Proposamenen artean aipagarriak dira honako hauek:

- Bateragarritasun zerbitzuak hobetzeko edota berriak sortzeko formazioa ikastaroak.

- Bateragarritasunerako tokiko zerbitzuak kudeatzeko eta eramateko gaitasuna hartzeko formazioa ikastaroak, pertsonen arreta eskaintzeko zerbitzuetako alorreko profil profesionalak ezagutzen dituzten pertsonentzat eginak, helburua delarik haiek gaitzea bateragarritasun partekaturako tokiko zerbitzu berriak eraman ditzaten.



- Tailer esperimentalak, bateragarritasunerako baliabideetan zenbait gizarte eragileri formazioa eskaintzeko eginak.

Enpresaren, elkartearen, administrazioaren alorretako eta, oro har, herritar desberdinez osatutako taldeei zuzenduak, helburua delarik toki bakoitzean pertsonen arreta eskaintzeko dauden zerbitzuen pertzepzioa aztertzea, bateragarritasuna dela-eta dauden aukerak eta mehatxuak zehaztuz eta proposamen berriak ekarriz.

- Familia eta haurrei arreta eskaintzeko proiektuen kudeatzaile diren pertsonentzat egindako ikastaroa. Pertsonen arreta eskaintzeko alorreko profil profesionala duten pertsonentzat egina, helburua delarik landu beharreko jende-multzok antzematea eta menpekoak diren pertsonen laguntza eta arreta eskaintzeko zerbitzuak ezartzea.

3. Erantzukizun partekaturako Itunak gizon-emakumeen artean.

Atal honi dagokionez, honako mota hauetako ekimenak esperimentatu dira:

- Sentsibilizazio topaketak, emakumeei begira eginak, erantzunkidetasunaren gaineko eztabaida taldeekin (emakumeak) osatuak.

- Etxeko lanetan formazioa eskaintzeko tailerrak, familiako edota etxeko erantzukizunak dituzten gizonentzat eginak, erantzunkidetasunaren gaineko eztabaida taldeekin (gizonak) osatuak.

- Esperientziak trukatzeko tailer mistoak; gizon-emakumeen arteko gogoeta eta praktika egiteko guneak dira. Erantzunkidetasunaren inguruko gaiak jorratzen dira bertan, batez ere menpeko pertsonen zaintzaren ingurukoak.

4. Denboraren kudeaketarako era berrien garapena eta ezarpena.

Hiru ekimen mota proposatzen dira:

- Tokiko Administrazio publikotik edo bestelako gizarte eragilearen (elkarteen) aldetik zuzendu edo sustatutakoak.

- Enpresen eta sindikatuen ehunduratik zuzendu edo sustatutakoak.

- Bereziki negoziazio kolektiboko beharrezko aldaketek dagozkienak.

Hona hemen hauen adibide zenbait:

1. Denboraren Bankuak / denboraren Laborategia.

Esperientzia hauen bitartez entitate batek, Udal bat dela edo tokiko gizartean sendo finkaturiko bestelako edozein eragile dela, antolatu, kudeatu eta sustatu egiten du herritarren arteko trukaketa, inongo diru-ordainik gabe, norberaren eskumeneko diren jardueretan emandako denbora trukatzeko. Pertsonen hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, eta horiek egitean kontu batean pilatzen du erabilitako "denbora" hori. Horren trukean, sisteman parte hartzen duen beste pertsona baten zerbitzuak erabiltzen ahal ditu. Bateragarritasunerako zerbitzuek leku handia dute era honetako esperientzietan, herritarrek maiz eskatzen eta eskaintzen baitituzte. Zerbitzuen trukaketa kudeatzen duten aldi berean, sistema honen bitartez entitate gehienak aukera berdintasuna eta generoen arteko parekotasuna sustatzen saiatzen dira, bai eta herritarren arteko bestelako komunikazioa eta baloreen sorrera ere.

2. Lanerako formula malguen sustapena.

